

BEZEROEN ALKOHOL KONTSUMOAREKIN LOTUTAKO ARRISKUAK MURRIZTEKO ESTRATEGIAK

Estrategia batzuk hauek izan daitezke:

- **Arau argiak ezartzea edari alkoholdunak zerbitzatzeko orduan**
 - Etxeko arauak gure lantokian onargarria denaren eta bezeroei onartu behar ez diegunaren esparrua mugatzen dute. Argi eta presente badugu, gure lana errazago egingo dugu, eta erosoago egingo dugu lan.
 - Arauek idatzirik egon behar dute.
 - Jabeak langileentzako eredu izan behar du.
 - Bezeroek gogoko dute arau etikoak daudela jakitea, legezko arauz gainera.
 - Etxeko arauetan hauexek egon daitezke:
 - Ez zerbitzatu alkoholik adingabeei
 - Neurritasuna sustatu
 - Ahalegina egin bezeroek alkoholaren eraginpean ez gidatzeko
- **Arrisku-egoerak antzematea**
 - Adingabeak establezimenduan
 - Autoz edo motorrez heldu diren pertsonak
 - Epe laburrean edari gogorra errepikatzen duen edale bakartia
 - Errondak egiten ari diren lagun-taldeak
 - Beren kontsumoa garrantzitsuena dela uste duten gazteak
 - Denbora luzez edaten ari den pertsona
 - Intoxikatuta dagoela ematen duen pertsona: garrasika dago, zailtasunez hitz egiten du, hizkuntza errepikakorra erabiltzen du, iskanbiletan tartean sartzen da, baldar dabil...

- **Intoxikazioa prebenitzeko estrategia hartzea**

- Jatekoa zerbitzatzea, jaki gaziak izan ezik (egarria eragiten dute)
- Edari alkoholdunen promozioak saihestea (2x1, barra libre, "edan jasan dezakezun gutzia") Gainera, legeak debekatu egiten ditu.
- Alkoholik gabeko edo alkohol gutxiko edariak sustatzea (%1etik beherakoak) Prezioen promozioa...
- Bezeroek edalontzia uzteko lekua izateko ahalegina egin, edalontzi-azpikoak erabili, etab.; kopa eskuan dugula, azkarrago edaten dugu.
- Hurbildu gehiegi edaten ari den pertsonarengana, ukitu gabe eta indarkeriazko jarrerarik gabe. Eskaini alkoholik gabeko edariak eta elkarrekin trukatu hitz batzuk (baliteke laguntza behar izatea edo edari alkoholdunen artean tarte gehiago uzteko aholkua)

- **Mozkorraldia antzematea**

- Lehenengo deshinibitzea agertzen da. Asko hitz egiten du, barre egiten du, garrasi
- Pixkanaka, gero eta oldarrogarago eta kitzikarrogarago dago, eta hitz egiteko zailtasunak ditu.
- Edalontzia bota dezake, kanbioekin nahastu, ordaindu gabe alde egin...
- Zutik egoteko arazoak izan ditzake, balantza egin.
- Zorabioak, gorakoak ditu, kontzientzian eragina du.

- **Indarkeria prebenitzeko neurriak izatea**

- Sartzeko arauak nagusitasunez betearazi, baina indarkeriarik gabe.
- Esku hartu bezeroa oldarkor jartzen hasten denean. Lasai hitz egin, borrokan ari den jendearengandik urruntzeko ahalegina egin, etxera joateko ahalegina egin...
- Esku hartu behar da, halaber, bezeroak sexu-harreman erasotzailea, mespretxuzkoa edo iraingarria duenean. Deshinibitzearen eraginagatik, egoera horiek ohikoagoak dira alkoholaren eraginpean.

- Ez ukitu sekula bezeroa. Hurbiltzeko keinua txarto interpreta daiteke.
- Ez geratu sekula pertsona bortitz batekin bakarrik; izan beti lekukoak.
- Bilatu lagun bitartekaritza, lokaletik atera dezaten.
- Egoera okerrago jartzen bada, deitu segurtasunari edo poliziarari.
- **Estrategia bat hartzea adingabeei zerbitzatzea saihesteko**
 - Lokalaren jabea da adingabeei alkohola banatzeko ardura duena.
 - Legezkoa da NANA eskatzea, adina egiaztatzeko
 - Lokal batzuek ere (diskotekak, kopak hartzeko pubak etab.) sartzeko gutxieneko adina dute (16 urte), eta atezainen bidez betearazi behar da.
- **Arrisku-egoeran dauden bezeroentzako garraio bide alternatiboren bat pentsatzea**
 - Taxia eskatzeko eskaintza egin
 - Familiarteko edo lagun bat bila etortzeko eskaintza egin bezeroari
 - Etxera mozkorrik ez dagoen lagun batek laguntzeko iradoki
 - Gogoratu, oso intoxikatuta dagoen pertsona batek istripua izan dezake, oinezko ere baden aldetik
 - Lokalean, ikusteko moduko guneeetan, inguruan dauden garraio publikoaren zerbitzuen berri eman.
 - Lokalean alkoholometroak eskura jarri, kontsumitu duena garraio alternatiboa erabiltzeko beharraz sentibilizatzeko edo, bestela, lokalean egoteko, alkoholemia gutxitu arte.
 - Anbulantziari deitu